



## **SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, SA SOZIEATEARENZAKO IHESALDI TURISTIKOAK PRESTATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA**

### **ESLEIPEN EBAZPENA**

2015eko abenduaren 4an kontratatzailearen profilean argitaratu zen San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, SA sozietatearentzako ihesaldi turistikoak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren iragarkia.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, 2015eko abenduaren 24an, enpresa bat izan zen proposamena aurkeztu zuena, hau da, Equinoccio Viajes, SA.

Teknikariek Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Agiriaren 15. klausulan ezarritako balorazio irizpideen arabera aztertu eta baloratu dituzte aurkeztutako eskaintzak, eta, eginkizun horretan, gehienez ere 80 puntu eman dizkiote "Proposamen teknikoari" eta 20 puntu "Proposamen ekonomikoari".

Horiek horrela, honako puntuazio hau izan da teknikariek egindako balorazioaren emaitza:

Lizitatzaileak	Proposamen teknikoa 80 puntu	Proposamen ekonomikoa 20 puntu	Guztizko puntuazioa
1. Equinoccio Viajes, SA	63	20	83

2016ko otsailaren 12an, lizitazio honetako teknikariek Equinoccio Viajes enpresak aurkeztutako proposamenari iritzi diote oro har eskaintza ekonomikoki onurazkoena, alderdi hauetan oinarrituta:

#### Memoria teknikoa:

- ✓ Laneko plana deskribatzeko eta azaltzeko metodologia, zerbitzuen definizioa, lantaldearen antolakuntza eta proposatutako ihesaldien konfigurazioaren deskribapen osoa eta zehatua: deskribapen zehatza, zehatz-mehatz adierazita lizitatzailearekin eta zerbitzu hornitzaileekin lan egiteko jardunbidea eta azken bezeroarekiko harremana.
- ✓ Zuzeneko bezeroaz bestelako erabiltzaileei, hots, nazioko zein nazioarteko bidaiari antolatzaileei eta bidaiari agentzia handizkariari ihesaldiak dinamizatzeko eta merkaturatzeko proposamenak.
- ✓ 1. klausulan eskatutako gutxienezko bestelako ihesaldiak proposatzeko aukera: 4 linea berriren proposamena.



- ✓ Erreserbak kudeatzeko sistema hobetzeko proposamenak egiteko aukera (adibidez, salmenta automatizatzea): automatizatzeko proposamena.

Giza baliabideak:

Eskatutako gutxieneakoak handitzeko proposamena.

Hori guztia dela eta, teknikariek proposatu dute San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, SA sozietatearentzako ihesaldi turistikoak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa enpresa horri esleitzea, errekerimenduan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Otsailaren 24an, Kontratazio Organoak Equinoccio Viajes, SA enpresari eskatu dio Teknikariek Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Agiriaren 17. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko, eta epearen barruan aurkeztu du.

Horiek horrela, Kontratazio Organoak honako hau

### **EBATZI DU**

**Lehena.** - San Sebastián Turismo - Donostia Turismoa, SA sozietatearentzako ihesaldi turistikoak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratua Equinoccio Viajes, SA enpresari esleitzea, teknikariek egindako balorazioaren arabera, eta urteko 24.000 euroko (BEZa kanpo) eta hiru hileko fakturazio bolumenaren % 4ko prezioan, formalizatu eta hurrengo egunetik hasi eta bi urteko eperako. Kontratazio Organoak urtero luza dezake epea, gehienez ere beste bi urte bete arte.

**Bigarrena.** - Ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitara dadin agintzea eta lizitatzaille guztiei jakinaraztea.

**Hirugarrena.** - Kontratua formalizatzea, lizitatzailleek ebazpen honen jakinarazpena hartzen dutenetik hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan.

Donostian, 2016ko martxoaren 29an.

---

Kontratazio Organoa  
Eneko Goia